Euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiten dutela adierazi duten galdetutako biztanleen % 37,4k adierazi dute familiartean beti, edo gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean baino gehiagotan, hitz egiten dutela euskaraz; % 47,2k gaztelaniaz hitz egiten dute beti, edo euskaraz –edo beste hizkuntza batean– baino maizago. % 14,9k adierazi dute berdin hitz egiten dutela gaztelaniaz, euskaraz edo beste hizkuntza batean, eta portzentaje txiki batek beste hizkuntza batzuk erabiltzen ditu.


3.2. NIVEL DE USO DEL EUSKERA ENTRE LA POBLACIÓN EUSKALDUN

El 37,4% de la población encuestada que declara hablar euskera bien o bastante bien utiliza esta lengua siempre o en mayor medida que el castellano u otra lengua cuando está en familia, mientras que el 47,2% usa el castellano siempre o en mayor medida que el euskera u otra lengua. El 14,9% declara que utiliza indistintamente el castellano, euskera u otra lengua, y un porcentaje mínimo afirma usar otras lenguas.

17. GRAFIKOA / GRÁFICO 17

Familia elkartzten denean, nola hitz egiten duzue? (%) (Oinarria: biztanle euskaldunak, hau da, euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiten dutenak, % 11,9)

Cuando está toda la familia reunida, ¿Cómo hablan entre ustedes? (%) (Base: Población euskaldun, es decir, que habla bien o bastante bien euskera, 11,9%)



Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea

Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

a) Euskararen erabilera-esparruak

Biztanle euskaldunek familiartean euskara zenbat erabiltzen duten aztertuta, ikusi da % 30 inguruk gurasoetako batekin euskaraz hitz egiten dutela (edo hitz egiten zutela) beti, edo gaztelaniaz (edo beste hizkuntza batean) baino maizago (% 27,9k aitarekin eta % 31,2k amarekin). Galdetutako pertsonak seme-alabekin hitz egiten dute gehiago euskaraz (% 31,5), eta bikotekidearekin % 24,1ek hitz egiten dute gehiago euskaraz. Hala ere, anai-arrebekin hitz egiten da gehien euskaraz (% 43,8).


a) Ámbitos de utilización del euskera

Al evaluar el uso del euskera por parte de la población euskaldun con las personas de su entorno familiar, se observa que **alrededor del 30% señala que habla o hablaba euskera con alguno de sus progenitores siempre o en mayor medida que en castellano u otra lengua (27,9% con el padre y 31,2% con la madre). Las personas entrevistadas emplean en mayor proporción el euskera con los hijos e hijas (31,5%) y con la pareja lo hace el 24,1%. Sin embargo, con quienes más se habla en euskera es con los/las hermanos/as (43,8%).**

18. GRAFIKOA / GRÁFICO 18

Zein hizkuntzatan hitz egin ohi duzu pertsona hauekin? (% bertikalak) (Euskaraz ongi edo oso ongi hitz egiten duten biztanleak, % 11,9)

¿En qué lengua habla normalmente con...? (% verticales) (Base: Población que habla euskera bien o bastante bien, 11,9%)



Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea

Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008



Bestalde, gizarte-esparruari dagokionez, euskaldun biztanleek pertsona hauekin egiten dute gehien euskaraz: lagunekin % 48,1ek, bizilagunekin % 36,1ek eta dendetan % 36,1ek. Aitzitik, Estatuko administrazioarekin hitz egiten dute gutxien euskaraz (% 13,7k).

Respecto al uso del euskera por parte de la población euskaldun con las personas del entorno social, es con los amigos (48,1%), los vecinos (36,6%) y en las tiendas (36,1%) con quienes con mayor frecuencia se utiliza el euskera a la hora de comunicarse. Por el contrario, con la Administración del Estado (13,7%) es con quien menos se comunica de forma oral en euskera.

19. GRAFIKOA / GRÁFICO 19

Zein hizkuntzatan hitz egin ohi duzu pertsona hauekin...? (% bertikalak) (Euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiten duten biztanleak, % 11,9)

¿En qué lengua habla normalmente con...? (% verticales) (Base: Población que habla euskera bien o bastante bien, 11,9%)



Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea

Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008


Nafarroako biztanle euskaldunek oharrak, ordainagiriak, panfletoak, gutunak eta abar bi hizkuntzatan (euskaraz eta gaztelaniaz) jasotzen dituztenean, % 27,3k euskaraz irakurtzen ditu, % 34,6k gaztelaniaz eta % 38,1k batean zein bestean.

Cuando la población euskaldun de Navarra recibe avisos, recibos, panfletos, cartas, etc. en bilingüe (euskera y castellano), el 27,3% las lee en euskera, el 34,6% las lee en castellano y el 38,1% lo hace indistintamente en cualquiera de los dos idiomas.

20. GRAFIKOA / GRÁFICO 20

Oharrak, ordainagiriak, panfletoak, gutunak, eta abar bi hizkuntzatan jasotzen dituzunean, zer hizkuntzatan irakurtzen dituzu? (% bertikalak) (Oinarria: biztanle euskaldunak)

Cuando recibe avisos, recibos, panfletos, cartas, etc. en bilingüe, ¿en qué idioma las lee? (% verticales) (Base: Población euskaldun)



Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea

Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

Adinaren arabera, 35 urtetik beherako pertsonak irakurtzen dituzte gehien agiri horiek euskaraz. Adinean gora egin ahala, ordea, gaztelaniazko irakurle-kopurua areagotu egiten da eta euskarazkoa gutxitu; hala ere, igoera txiki bat ageri da 55 urtetik aurrerakoan taldean.

Por edad, las personas menores de 35 años son las que leen este tipo de documentos mayoritariamente en euskera. Sin embargo, a medida que aumenta la edad, se eleva el volumen de lectores en castellano y se reduce el de lectores en euskera, aunque se aprecia cierta recuperación de este último colectivo a partir de los 55 años.

28. TAULA / CUADRO 28

Oharrak, ordainagiriak, panfletoak, gutunak, eta abar bi hizkuntzatan jasotzen dituzunean, zer hizkuntzatan irakurtzen dituzu? Adinaren arabera (% bertikalak) (Oinarria: biztanle euskaldunak)

Cuando recibe avisos, recibos, panfletos, cartas, etc. en bilingüe, ¿en qué idioma las lee? Por edad (% verticales) (Base: Población euskaldun)

	ADINA / EDAD				
	15-24 urte / años	25-34 urte / años	35-54 urte / años	55-64 urte / años	65 urte eta gehiago / y + años
■ Gaztelaniaz / En castellano	30,9	31,9	30,0	50,2	44,6
■ Euskaraz / En euskera	44,2	30,8	17,8	21,5	25,3
■ Batean zein bestean / Indistintamente	24,9	37,3	52,2	28,3	30,1

Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea

Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

Eskolatz-mailari dagokionez, hizkuntza-profilak eragin handia du Nafarroako etxeetan jasotzen dituzten agiriak irakurtzeko jokamoldean. Lehen mailako ikasketak bukatu gabe dituzten euskaldunek irakurtzen dituzte gehien agiri horiek euskaraz, eta horien atzetik daude lizentziadunak eta erdi mailako ikasketak dituztenak. Lehen mailako ikasketak bukatuta dituztenek irakurtzen dituzte gutxien horrelako agiriak euskaraz.

En cuanto al nivel de instrucción, es notable la influencia del perfil lingüístico en el comportamiento a la hora de leer la documentación que llega a los hogares de Navarra. Así, las personas euskaldunes que carecen de estudios primarios terminados son las que leen con mayor frecuencia estos documentos en euskera, seguidas por las personas licenciadas y las que poseen estudios de grado medio. Las que menos lo hacen son aquellas que disponen de estudios primarios terminados.

29. TAULA / CUADRO 29

Oharrak, ordainagiriak, panfletoak, gutunak, eta abar bi hizkuntzatan jasotzen dituzunean, zer hizkuntzatan irakurtzen dituzu? Eskolatz-mailaren arabera (% bertikalak) (Oinarria: biztanle euskaldunak)

Cuando recibe avisos, recibos, panfletos, cartas, etc. en bilingüe, ¿en qué idioma las lee? Por nivel de instrucción (% verticales) (Base: Población euskaldun)

	BUKATU GABEKO LEHEN HEZKUNTZA ESTUDIOS PRIMARIOS SIN TERMINAR	LEHEN HEZKUNTZA ESTUDIOS PRIMARIOS	BIGARREN HEZKUNTZA ESTUDIOS SECUNDARIOS	ERDI MAILAKO IKASKETAK ESTUDIOS DE GRADO MEDIO	DIPLOMATURA	LIZENTZIA LICENCIATURA
■ Gaztelaniaz / En castellano	26,9	52,2	39,1	32,5	37,4	21,2
■ Euskaraz / En euskera	36,1	16,0	27,7	28,8	26,0	30,8
■ Batean zein bestean / Indistintamente	37,0	31,8	33,2	38,7	36,6	48,0

Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea

Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008


Oharrak, ordainagiriak, panfletoak, gutunak eta abar irakurtzean euskararen ordeaz gaztelania erabiltzea nahiago izateko arrazoi hauek ematen dituzte biztanle euskaldunek: batetik, erraztasuna, erosotasuna edo agiri horietan erabili ohi den hizkera gaztelaniaz euskaraz baino hobeki ulertzea (% 79,9k), eta, bestetik, agiri horiek gaztelaniaz bakarrik jasotzea (% 13,3k).

Los argumentos que plantea la población euskaldun encuestada para justificar la utilización del castellano en lugar del euskera en la lectura de avisos, recibos, panfletos, cartas, etc. son la facilidad, la comodidad o porque entiende mejor el castellano que el euskera utilizado en este tipo de documentos (79,9%), y porque recibe los documentos en cuestión únicamente en castellano (13,3%).

21. GRAFIKOA / GRÁFICO 21

Euskaraz eta gaztelaniaz dauden oharrak, ordainagiriak, panfletoak, gutunak eta abar irakurtzean gaztelania hobesteko arrazoiak. Oinarria: bi hizkuntzatan jasotako oharrak, ordainagiriak, panfletoak, gutunak eta abar gaztelaniaz irakurtzen dituztela erantzun duten biztanle euskaldunen % 34,6

Razones de utilización del castellano frente al euskera en la lectura de avisos, recibos, panfletos, cartas, etc. (Base: Población euskaldun que ha contestado que lee en castellano los avisos, recibos, panfletos, cartas, etc. recibidos en bilingüe, el 34,6% de la población euskaldun)



Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea

Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

b) Euskaraz egindako jarduerak


Azterketaren arabera, biztanle euskaldunei euskarazko jardueren artetik zeinetan aritu ohi diren galdetuta, erantzun dute batik bat euskarazko telebista ikusten dutela (% 87,4k), euskarazko musika entzuten dutela (% 75ek), euskarazko irratia entzuten dutela (% 71,6k) eta euskarazko prentsa irakurtzen dutela (% 56,4k).

b) Actividades realizadas en euskera

El estudio muestra que, de las actividades que pueden realizarse en euskera sobre las que se ha preguntado a la población euskaldun, las que se llevan a cabo principalmente son ver la televisión que se emite en este idioma (87,4%), escuchar música (75%), escuchar la radio en euskera (71,6%) y leer la prensa en euskera (56,4%).

22. GRAFIKOA / GRÁFICO 22

Euskaraz egindako jarduerak (% bertikalak) (Oinarria: biztanle euskaldunak)
Actividades realizadas en euskera (% verticales) (Base: Población euskaldun)



Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea
 Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

Adinaren arabera, galdetutako 35 eta 45 urte bitarteko pertsonak egiten dituzte maizago euskarazko jarduerak.

Por edades, las personas encuestadas que se sitúan entre los 35 y 45 años son las que realizan con mayor frecuencia este tipo de actividades en euskera.

30. TAULA / CUADRO 30

Jarduera hauek euskaraz egiten dituzten Nafarroako biztanle euskaldunen batez besteko adina (Oinarria: biztanle euskaldunak)

Media de edad de la población euskaldun de Navarra que realiza las siguientes actividades en euskera (Base: Población euskaldun)

	BATEZ BESTEKO ADINA EDAD MEDIA
Prentsa irakurtzea / Leer prensa	39
Liburuak irakurtzea / Leer libros	36
Idaztea / Escribir	36
Euskarazko telebista ikustea / Ver TV en euskera	41
Euskarazko saioak dituen irratia entzutea / Escuchar la radio con programación en euskera	41
Hitzaldietara joatea / Acudir a charlas	39
Musika entzutea / Escuchar música	38

Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea
 Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008


Biztanle euskaldunei euskarazko prentsa zergatik irakurtzen duten galdetuta, erantzun dute gustatu egiten zaiela (% 30,4k), euskaraz ikasi eta jarduteko egiten dutela (% 28,6k) eta eskaintzen dituzten berri nahiz edukiengatik egiten dutela (% 19,4k).

Las principales razones de la población euskaldun encuestada para leer la prensa en euskera son que le gusta (30,4%), para practicar y aprender el idioma (28,6%) y por las noticias y contenidos que ofrecen (19,4).

23. GRAFIKOA / GRÁFICO 23

Euskarazko prentsa irakurtzeko Nafarroako biztanle euskaldunen arrazoi nagusiak (% bertikalak) (Oinarria: biztanle euskaldunak)

Principales razones de la población euskaldun de Navarra para leer la prensa en euskera (% verticales) (Base: Población euskaldun)



Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea

Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008


Euskarazko prentsa idatzian bezalaxe, biztanle euskaldunei euskarazko irratia zergatik entzuten duten galdetuta, erantzun dute gustatu egiten zaiela (% 33,4k), euskaraz ikasteko eta jarduteko balio diela (% 19,1ek), saio-eskaintzagatik (% 13,6k) eta albiste nahiz edukiengatik (% 13,1ek) egiten dutela.

Al igual que en el caso de la prensa escrita en euskera, la población euskaldun encuestada declara escuchar la radio en euskera principalmente porque le gusta (33,4%), porque le permite practicar y aprender el idioma (19,1%) y por la programación (13,6% y, las noticias y los contenidos que ofrece (13,1%).

24. GRAFIKOA / GRÁFICO 24

Euskarazko irratia entzuteko Nafarroako biztanle euskaldunen arrazoi nagusiak (% bertikalak) (Oinarria: biztanle euskaldunak)

Principales razones de la población euskaldun de Navarra para escuchar la radio en euskera (% verticales) (Base: Población euskaldun)




Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea

Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

Euskarazko telebista ikusteko biztanle euskaldunen arrazoiak prentsari buruz eta irritari buruz emandako berberak dira: gustatu egiten zaielako (% 29,1ek), eskainitako saioengatik (% 27,8k) eta euskaraz ikasteko eta jarduteko aukera ematen die-lako (% 15,9k).

Los argumentos ofrecidos por la población euskaldun encuestada que ve la TV en euskera son los mismos que en el caso de la lectura de prensa y la escucha de radio: porque le gusta (29,1%), por la programación que ofrece (27,8%) y por la oportunidad que supone para practicar y aprender euskera (15,9%).

25. GRAFIKOA / GRÁFICO 25
Euskarazko telebista ikusteko Nafarroako biztanle euskaldunen arrazoi nagusiak (% bertikalak) (Oinarria: biztanle euskaldunak)
Principales razones de la población euskaldun de Navarra para ver la TV en euskera (% verticales) (Base: Población euskaldun)



Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea
Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

Galdetutako biztanle euskaldunen % 34,1ek adierazi dute aurten gutxienez euskarazko liburu bat irakurri dutela, eta % 65,9k adierazi dute ez dutela euskarazko libururik irakurri. Gaztelaniazko liburuak dagokienez, biztanle euskaldunen % 60,7k adierazi dute gutxienez bat irakurri dutela; urtean, batez beste, 3,27 liburu irakurri dira.

El 34,1% de la población euskaldun entrevistada ha leído al menos un libro en euskera en el último año, frente al 65,9% que declara no haber leído ninguno. En el caso de los libros en castellano, el 60,7% de la población euskaldun afirma haber leído al menos uno, situándose la media en 3,27 libros en un año.

31. TAULA / CUADRO 31
Nafarroako biztanle euskaldunek euskaraz eta gaztelaniaz irakurri dituzten liburuak (Oinarria: biztanle euskaldunak)
Lectura de libros en euskera y castellano por parte de la población euskaldun de Navarra (Base: Población euskaldun)

	BATEZ BESTEKO ADINA EDAD MEDIA
Azken urtean euskarazko liburu bat irakurri du, gutxienez / Ha leído al menos un libro en euskera en el último año	34,1%
Batez beste / Media	0,97
Azken urtean gaztelaniazko liburu bat irakurri du, gutxienez / Ha leído al menos un libro en castellano en el último año	60,7%
Batez beste / Media	3,27

Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea
Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

c) Euskara ikasteko lekua

Euskaraz dakiten Nafarroako biztanleen erdiak baino gehiagok¹⁷ adierazi dute familian (% 62,9k) eta eskolan ikasi dutela euskaraz (% 35,2k). Euskaltegia hirugarren lekuan dago, euskara ikasteko lekuen artean (% 14,8).

Askoz gutxiago dira euskaraz bere kabuz (% 5,9) edo lagunekin (% 3,9) ikasi izana adierazi dutenak.

c) Lugar de aprendizaje del euskera


Más de la mitad de la población de Navarra con conocimientos de euskera¹⁸ señala que ha aprendido esta lengua en la familia (62,9%) y en la escuela (35,2%). En tercer lugar se sitúa el Euskaltegi (14,8%) como lugar de aprendizaje del idioma.

El colectivo de personas que han señalado haber aprendido el euskera por su cuenta (5,9%) o con los amigos (3,9%), muestra cifras considerablemente inferiores a las anteriores.

26. GRAFIKOA / GRÁFICO 26

Euskaraz dakiten biztanleek euskaraz non ikasi duten (% bertikalak) (Oinarria: galdetzerakoan euskaraz badakitela esan duten biztanleak)

Lugar de aprendizaje del euskera entre la población con conocimientos de euskera (% verticales) (Base: Población encuestada que considera que sabe euskera)



Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea

Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

Euskararen ikaskuntzan ikastetxeak eta familiak duten eragina adinari lotua dago erabat. Hala, bada, **zaharrenek familiaritean (% 76,6k) edo lagunekin (% 20,7k) ikasi dute** euskaraz, eta gutxi egin dute euskaltegian edo eskolan (% 2,7k eta % 0,4k, hurrenez hurren).

Gazteenek batez ere eskolan ikasi dute euskaraz: 15 eta 24 urte bitarteko biztanleen % 74,5endako ikastetxea euskara ikasteko lehen-tasuneko tokia da.

El papel que juega tanto el centro escolar como la familia en el aprendizaje del euskera está fuertemente relacionado con la edad. Así, **en el caso de las personas de mayor edad el aprendizaje del euskera se ha realizado con la familia (76,6%) o con los amigos (20,7%),** mientras que el aprendizaje en euskaltegis o en la escuela ha sido mucho más reducido (2,7% y 0,4% respectivamente).

La escuela representa el principal lugar de aprendizaje del euskera para el colectivo más joven: el 74,5% de la población de 15 a 24 años ha señalado el centro educativo como lugar preferente de aprendizaje.

¹⁷ Oinarria: euskaraz badakitela adierazi duten pertsonak: galdetutako biztanleen % 17,6.

¹⁸ Base: Personas encuestadas que consideran que saben euskera, 17,6% de la población encuestada.

35 eta 54 urte bitartekoen taldean, berriz, garrantzitsuagoa da euskaltegia: euskaraz dakiten adin horietako pertsonen % 39 euskaltegiara joan dira euskara ikastera.

Es precisamente en el intervalo de edad de 35 a 54 años donde el euskaltegi comienza a cobrar importancia: el 39% de las personas de estas edades que posee conocimientos de euskera ha acudido a un euskaltegi para aprender el idioma.

32. TAULA / CUADRO 32

Euskaraz dakiten biztanleek euskaraz non ikasi duten, adinaren arabera (% bertikalak) (Oinarria: galdetzerakoan euskaraz badakitela esan duten biztanleak)¹⁹

Lugar de aprendizaje del euskera entre la población con conocimientos de euskera, por edad (% verticales) (Base: Población encuestada que considera que sabe euskera)²⁰

	ADINA / EDAD				
	15-24 urte / años	25-34 urte / años	35-54 urte / años	55-64 urte / años	65 urte eta gehiago / y + años
Familiarrean / En la familia	39,5	40,9	48,4	60,9	76,6
Eskolan / En la escuela	74,5	52,8	16,8	3,2	0,4
Lagunekin / Con los amigos/as	4,2	6,5	4,7	1,4	20,7
Euskaltegian / En el Euskaltegi	3,4	27,8	39,0	23,3	2,6
Haie kabuz / Por su cuenta	0,1	7,4	16,6	17,0	6,9

Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea

Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

d) Euskaraz ez dakiten biztanleak

Galdetutako pertsonen % 81,9k adierazi dute ez dakitela euskaraz edo hitz batzuk bakarrik dakizkitela. Gaztelaniadunen % 70,1 Nafarroako udalerriren batean jaio dira. Gaur egun, horien % 56,1 eremu mistoko udalerriri batean bizi dira, eta % 40 eremu ez-euskaldunean. Eskualdez eskualde, talde horietako biztanleen erdiak (% 55) Iruñaldea inguruan bizi dira, % 15,7 Tuteraldean, eta % 11,4 Erriberan; gainerakoak beste eskualde batzuetan bizi dira, eta horietako bakoitzean % 5 baino gutxiago dira. Talde horietan gehixeago dira emakumezkoak gizonezkoak baino (% 55,5 dira emakumezkoak eta % 44,5 gizonezkoak). Adinaren arabera, biztanle gaztelaniadunen herena baino gehiago 35 eta 54 urte bitartekoa da (% 34,8); heren bat inguruk 55 urte edo gehiago dute (% 35,6) eta talde osoaren % 29,7k 35 urte baino gutxiago dute.

Galdetutako biztanleen sektore honen erdiak baino gehiagok jarrera arduragabea du euskararekin: % 53k adierazi duenez, euskarak ez die batere axola edo gutxi axola die; gaztelaniadunen % 45,6k euskara interesatzen zaiela adierazi dute.

d) La población que no sabe euskera

El 81,9% de las personas encuestadas declara no hablar nada de euskera o conoce solo algunas palabras del idioma. El 70,1% de este colectivo castellanoparlante ha nacido en algún municipio de Navarra. Actualmente, el 56,1% reside en un municipio encuadrado en la zona mixta y el 40% habita en la zona no vascófona. Por comarcas, alrededor de la mitad de este sector de la población reside en la zona de Pamplona (55%), el 15,7% habita en la comarca de Tudela y el 11,4% vive en la Ribera; el resto del colectivo se reparte entre las demás comarcas en porcentajes inferiores al 5%. Se trata de un colectivo en el que el peso de la mujer es algo superior al del hombre (55,5% de mujeres y 44,55 de hombres). Atendiendo a la edad, algo más de un tercio de la población castellanoparlante se sitúa entre los 35 y 54 años (34,8%), otro tercio aproximadamente tiene 55 años o más (35,6%) y la población menor de 35 años representa el 29,7% del total del colectivo.


Más de la mitad de este sector de la población encuestada mantiene una actitud indiferente hacia el euskera, ya que el 53% manifiesta que le interesa poco o nada el euskera, frente al interés que muestra el 45,6% del colectivo castellanoparlante.

¹⁹ Portzentaje bertikalen batura ez da 100, erantzun anitzeko galdera delako, hau da, beharbada hainbat lekutan eta hainbat eratarik ikasi dute euskaraz.

²⁰ Los porcentajes en vertical no suman 100 al tratarse de una pregunta de respuesta múltiple; es decir, se ha podido aprender euskera en varios sitios o de varias formas.

27. GRAFIKOA / GRÁFICO 27

Zenbateraino interesatzen zaizu euskara? (% bertikalak) (Oinarria: euskaraz ez dakiten biztanleak)
¿Qué grado de interés tiene sobre el euskera? (% verticales) (Base: Población que no sabe euskera)



Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea


Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

Euskaraz ez ikasteko arrazoi nagusiak hauek dira: denborarik eza (% 19,5), interesik eza (% 19,4) eta aukera hori aztertu ez izana (% 16,8).

Los principales motivos por los que no ha aprendido euskera son la falta de tiempo (19,5%), la falta de interés (19,4%), y porque no se lo ha planteado (16,8%).

28. GRAFIKOA / GRÁFICO 28

Euskaraz ez ikasteko edo horretan interesik ez izateko arrazoiak (%) (Oinarria: euskaraz ez dakiten biztanleak)
Motivos de no haber aprendido o de desinterés por el euskera (%) (Base: Población que no sabe euskera)



Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea

Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

4. Euskara eta irakaskuntza

Nafarroako Foru Komunitatean lau irakaskuntza-eredu eskaintzen dira; horietako hirutan euskara eta/edo euskaraz irakasten da, ereduaren arabera²¹. Eremu euskaldunean A eredu nahitaezkoa da, eta B edo D ereduak aukera ditzakete gurasoek edo tutoreek, hala nahi izanez gero. Eremu mistoan, hizkuntza-ereduaren arabera aukeratzen dute gurasoek seme-alaben heziketa. Eremu ez-euskaldunean, G eredu nahitaezkoa da, eta A eredu, berriz, hautazkoa. 2008ko irailaz geroztik D eredu eskaintzen da sare publikoan.

4.1. NAHITAEZKO HEZKUNTZA ETA GOI MAILAKO HEZKUNTZA

Nafarroako biztanleen % 4,5ek noiz edo noiz D eredu (irakasgai guztiak euskaraz, gaztelania izan ezik) egin dituzte ikasketak; galdetutako 4 lagunetatik 1ek A edo B eredu (irakasgai batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz) egin ditu ikasketak; eta gehienek G eredu egin dituzte ikasketak guztiak (gaztelaniaz bakarrik).

Bigarren hezkuntzari dagokionez, ikasketa-mailaren arabera azterketak erakusten du ikasketa-mailak gora egin ahala handiagoa dela euskara hutsezko eredu. Joera bera azaltzen da A eta B ereduetan; G eredu, ordea, indarra galtzen du, hezkuntza-mailak gora egin ahala.

4. Euskera y enseñanza

En la Comunidad Foral de Navarra se ofertan cuatro modelos de enseñanza, tres de los cuales combinan distintos grados de enseñanza del euskera o en euskera según el caso²². En la zona vascófona el modelo A es obligatorio, pudiéndose elegir los modelos B y D a solicitud de los padres o tutores. En la zona mixta, los padres o tutores eligen la enseñanza para sus hijos e hijas según el modelo lingüístico. En la zona no vascófona, el modelo G es obligatorio, mientras que el modelo A es opcional. El modelo D se ha comenzado a ofertar a partir de septiembre del 2008 en la red pública.

4.1. LA ENSEÑANZA OBLIGATORIA Y SUPERIOR

El 4,5% de la población de Navarra ha cursado en algún momento sus estudios en el modelo D (enseñanza en euskera excepto lengua castellana); 1 de cada 4 personas encuestadas lo ha hecho en el modelo A o B (enseñanza en euskera y castellano); y una amplia mayoría ha cursado todos sus estudios en el modelo G (enseñanza en castellano).

Respecto a la enseñanza secundaria, el análisis detallado por nivel de estudios muestra que la presencia del modelo íntegramente en euskera es mayor a medida que aumenta el nivel académico. Se registra la misma tendencia en los modelos A y B, pero ocurre a la inversa en el modelo G, que pierde fuerza a medida que se eleva el nivel educativo.

33. TAULA / CUADRO 33

Nafarroako biztanleek egindako ikasketen irakaskuntza-eredua. (% bertikalak)
Modelo de enseñanza en el que la Población de Navarra cursó sus estudios. (% verticales)

	NAFARROA NAVARRA	IKASKETA-MAILA / NIVEL DE ESTUDIOS		
		HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA INFANTIL / PRIMARIA	DBH ESO	BATXILERGOA / ERDI MAILAKO ZIKLOA / GOI MAILAKO ZIKLOA BACHILLERATO / CICLO GRADO MEDIO / CICLO GRADO SUPERIOR
A eta B ereduak ²³ / Modelo A y B ²⁴	25,4	14,3	20,7	35,0
D eredu ²⁵ / Modelo D ²⁶	4,5	0,2	2,8	7,3
G eredu ²⁷ / Modelo G ²⁸	70,0	85,5	76,5	57,7

Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea
Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

¹⁹ Portzentaje bertikalen batura ez da 100, erantzun anitzeko galdera delako, hau da, beharbada hainbat lekutan eta hainbat eratarik ikasi dute euskaraz.

²⁰ Los porcentajes en vertical no suman 100 al tratarse de una pregunta de respuesta múltiple; es decir, se ha podido aprender euskera en varios sitios o de varias formas.

Goi mailako irakaskuntzan joera orokorra azaltzen da berriro; ikasketa mailak gora egin ahala, euskararen presentzia areagotu egiten da. Hala, bada, % 1,9k egin dituzte diplomatura ikasketak euskaraz, % 3k egin dituzte lizentzia ikasketak euskaraz, eta % 3,2k egin dituzte graduondokoak, masterrak eta abar euskaraz.

En la enseñanza superior se repite la tendencia general: se advierte que a medida que se eleva el nivel académico, la presencia del euskera es más significativa. Así, las personas que han cursado estudios de diplomatura en euskera representan el 1,9%, este porcentaje se eleva al 3% en el caso de los estudios de licenciatura y alcanza el 3,2% en los postgrados, masters, etc.

34. TAULA / CUADRO 34

Nafarroako biztanleek egindako ikasketen irakaskuntza-eredua. (% bertikalak)

Modelo de enseñanza en el que la Población de Navarra cursó sus estudios. (% verticales)

	IKASKETA-MAILA / NIVEL DE ESTUDIOS		
	DIPLOMATURA	LIZENTZIA LICENCIATURA	GRADUONDOA, DOKTORETZA, MASTERRA POSTGRADO, DOCTORADO, MASTER
■ Gaztelaniaz / Castellano	98,1	97,0	96,8
■ Euskaraz / Euskera	1,9	3,0	3,2

Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea

Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

Adinaren arabera, 15 eta 24 urte bitarteko gazteek D ereduan egin dituzte ikasketak, gainerako biztanleek baino gehiago (% 16,7k); hurrengo adin tartean, erdira jaisten da portzentajea (% 8,4), eta gutxituz doa biztanleak zahartu ahala. Zenbat eta ikasketa-maila txikiagoa izan, hainbat eta zabalagoa da irakaskuntza eredu hori gazteen artean, eta hori gazteen adinari lotuta dago, zalantzarik gabe²⁹.

En cuanto a la edad, el segmento de jóvenes entre 15 y 24 años ha cursado sus estudios en el modelo D en mayor medida que el resto de la población (16,7%); en el siguiente intervalo de edad el porcentaje se reduce a la mitad (8,4%) y continua descendiendo a medida que la población se hace mayor. La presencia de este modelo de enseñanza entre la población joven es superior conforme los estudios cursados sean de menor nivel, evidentemente este hecho está estrechamente ligado a la edad de este colectivo³⁰.

35. TAULA / CUADRO 35

Nafarroako biztanleek egindako ikasketen irakaskuntza-eredua, adinaren arabera (% bertikalak)

Modelo de enseñanza en el que la Población de Navarra cursó sus estudios por edad. (% verticales)

	ADINA / EDAD				
	15-24 urte / años	25-34 urte / años	35-54 urte / años	55-64 urte / años	65 urte eta gehiago / y + años
A eta B ereduak ³¹ / Modelo A y B ³²	38,4	31,6	30,9	12,1	10,4
D eredua ³³ / Modelo D ³⁴	16,7	8,4	2,2	0,2	0,4
G eredua ³⁵ / Modelo G ³⁶	44,9	60,0	66,9	87,7	89,2

Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea

Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

²³ Ikasketak A edo B ereduan egin ditu noiz edo noiz.

²⁵ Ikasketak D ereduan egin ditu noiz edo noiz.

²⁷ G ereduan egin ditu ikasketa guztiak.

²⁹ 15 eta 17 urte bitarteko gazteek ez dute erdi edo goi mailako ikasketarik, eta, beraz, lehen edo bigarren hezkuntza egin dutenen artean sartzen dira.

³¹ Ikasketak A edo B ereduan egin ditu noiz edo noiz.

³³ Ikasketak D ereduan egin ditu noiz edo noiz.

³⁵ G ereduan egin ditu ikasketa guztiak.

²⁴ En algún momento de sus estudios ha cursado en modelo A o B.

²⁶ En algún momento de sus estudios ha cursado en modelo D.

²⁸ Ha cursado todos los estudios en el modelo G.

³⁰ Los jóvenes de 15 a 17 años por edad no disponen de estudios medios o superiores y por tanto están englobados entre la población con estudios secundarios o primarios, según el caso.

³² En algún momento de sus estudios ha cursado en modelo A o B.

³⁴ En algún momento de sus estudios ha cursado en modelo D.

³⁶ Ha cursado todos los estudios en el modelo G.

Alde horretatik, % 40,6k egin dituzte D ereduan lehen hezkuntzako ikasketak, % 11,2k egin dituzte D ereduan bigarren hezkuntzako ikasketak, eta % 20,3k batxilergoa nahiz erdi edo goi mailako ikasketak.

En este sentido, la incidencia del modelo D entre los jóvenes con estudios primarios es del 40,6%, entre los que cuentan con estudios secundarios desciende al 11,2% y los que disponen de estudios de bachillerato o de grado medio o superior representan el 20,3%.

36. TAULA / CUADRO 36

Nafarroako 15 eta 24 urte bitarteko biztanleek egindako bigarren hezkuntzako ikasketen eredua. (% bertikalak). Oinarria: 15 eta 24 urte bitarteko biztanleak
Modelo de Enseñanza secundaria en el que la Población de Navarra de 15 a 24 años cursó sus estudios. (% verticales)
 (Base: Población de 15 a 24 años)

	IKASKETA-MAILA / NIVEL DE ESTUDIOS		
	HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA INFANTIL / PRIMARIA	DBH ESO	BATXILERGOA / ERDI MAILAKO ZIKLOA / GOI MAILAKO ZIKLOA BACHILLERATO / CICLO GRADO MEDIO / CICLO GRADO SUPERIOR
A eta B ereduak ³⁷ / Modelo A y B ³⁸	58,9	29,2	41,1
D ereduak ³⁹ / Modelo D ⁴⁰	40,6	11,2	20,3
G ereduak ⁴¹ / Modelo G ⁴²	0,5	59,6	38,6

Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea
 Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

Nafarroako biztanleen hizkuntza-profilari dagokionez, **10 euskaldunetatik 4k euskara hutsean egin dituzte ikasketak, eta 10etik 3k A edo B ereduan.** la euskaldunen artean, erdiak baino gutxiagok A edo B ereduak aukeratu dute, eta beste erdiak gaztelania hutsean egin dituzte ikasketak. Bestalde, gaztelaniadun gehienek gaztelaniaz egin dituzte ikasketak.

En cuanto al perfil lingüístico de la población de Navarra se observa que **4 de cada 10 personas euskaldunes ha cursado sus estudios íntegramente en euskera y 3 de cada 10 lo ha hecho en los modelos A o B.** En el caso del colectivo cuasi-euskaldun, algo menos de la mitad de la población se ha decantado por los modelos A o B, mientras que la otra mitad ha estudiado íntegramente en castellano. Por otro lado, la mayoría de las personas castellanoparlantes ha realizado sus estudios en castellano.

37. TAULA / CUADRO 37

Nafarroako biztanleek egindako ikasketen irakaskuntza-eredua, hizkuntza-profilaren arabera. (% bertikalak)
Modelo de Enseñanza en el que la Población de Navarra cursó sus estudios por perfil lingüístico. (% verticales)

	EUSKALDUNAK EUSKALDUN	IA-EUSKALDUNAK CUASI-EUSKALDUN	GAZTELANIADUNAK CASTELLANOPARLANTE
A eta B ereduak ⁴³ / Modelo A y B ⁴⁴	30,4	43,6	23,3
D ereduak ⁴⁵ / Modelo D ⁴⁶	37,3	1,0	0,1
G ereduak ⁴⁷ / Modelo G ⁴⁸	32,3	55,4	76,6

Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea
 Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

³⁷ Ikasketak A edo B ereduan egin ditu noiz edo noiz.

³⁹ Ikasketak D ereduan egin ditu noiz edo noiz.

⁴¹ G ereduan egin ditu ikasketak guztiak.

⁴³ Ikasketak A edo B ereduan egin ditu noiz edo noiz.

⁴⁵ Ikasketak D ereduan egin ditu noiz edo noiz.

⁴⁷ G ereduan egin ditu ikasketak guztiak.

³⁸ En algún momento de sus estudios ha cursado en modelo A o B.

⁴⁰ En algún momento de sus estudios ha cursado en modelo D.

⁴² Ha cursado todos los estudios en el modelo G.

⁴⁴ En algún momento de sus estudios ha cursado en modelo A o B.

⁴⁶ En algún momento de sus estudios ha cursado en modelo D.

⁴⁸ Ha cursado todos los estudios en el modelo G.

Eremu euskalduneko biztanleen % 45 inguruk euskarazko eredueta batean egin dituzte ikasketak: % 28,7k A edo B ereduak ikasi dute, eta % 16,1ek D ereduak. Eremu mistoan portzentajea % 37,2koa da, eta emaitzarik urriena eremu ez-euskaldunetan dugu (% 14,6).

Cerca del 45% de la población residente en la zona vascófona ha cursado estudios en alguno de los modelos de enseñanza que incluye el euskera (el 28,7% ha estudiado en el modelo A o B y el 16,1% lo ha hecho en el modelo D). Este porcentaje desciende al 37,2% en la zona mixta y registra el menor resultado en la zona no vascófona (14,6%).

38. TAULA / CUADRO 38

Nafarroako biztanleek egindako ikasketen irakaskuntza-eredua, hizkuntza-eremuen arabera. (% bertikalak)
Modelo de Enseñanza en el que la Población de Navarra cursó sus estudios por zona lingüística. (% verticales)

	EREMU EUSKALDUNA ZONA VASCÓFONA	EREMU MISTOA ZONA MIXTA	EREMU EZ-EUSKALDUNA ZONA NO VASCÓFONA
A eta B ereduak ⁴⁹ / Modelo A y B ⁵⁰	28,7	32,4	13,6
D ereduak ⁵¹ / Modelo D ⁵²	16,1	4,8	1,0
G ereduak ⁵³ / Modelo G ⁵⁴	55,2	62,9	85,3

Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea

Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

Nafarroako 2000. urteko Eskualdekatzearen arabera, D ereduak Ipar-mendebaldean dago hedatuen (% 16); gainerako eskualdeetan, berriz, % 5 ingurukoa da indizea. A edo B ereduak oso hedaturik daude Iruñean (% 32,6), Ipar-mendebaldean (% 29,4) eta Erriberan (% 22,6); gainerako eskualdeetan % 10 eta % 13 bitartekoa da portzentajea.

El análisis según la Zonificación Navarra 2000 muestra que la mayor incidencia del modelo D se registra en la zona Noroeste (16%), mientras que en el resto de comarcas el índice se sitúa en torno al 5%. La presencia de los modelos A o B es notable en las zonas de Pamplona (32,6%), Noroeste (29,4%), y Ribera (22,6%); en el resto de comarcas el porcentaje se mantiene entre el 10%-13%.

39. TAULA / CUADRO 39

Nafarroako biztanleek egindako ikasketen irakaskuntza-eredua, Nafarroako 2000. urteko Eskualdekatzearen arabera (% bertikalak)
Modelo de Enseñanza en el que la Población de Navarra cursó sus estudios según la Zonificación Navarra 2000. (% verticales)

	IPAR- MENDEBALDEA NOROESTE	PIRINIOALDEA PIRINEO	IRUÑALDEA PAMPLONA	ESTELLERRIA TIERRA ESTELLA	EKIALDEKO ERDIALDEKO NAFARROA NAVARRA MEDIA ORIENTAL	ERRIBERA RIBERA	TUTERALDEA TUDELA
A eta B ereduak ⁵⁵ / Modelo A y B ⁵⁶	29,4	13,2	32,6	10,9	11,6	22,6	10,1
D ereduak ⁵⁷ / Modelo D ⁵⁸	16,0	5,2	4,6	4,9	2,7	0,0	0,0
G ereduak ⁵⁹ / Modelo G ⁶⁰	54,6	81,6	62,8	84,1	85,7	77,4	89,9

Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea

Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

⁴⁹ Ikasketak A edo B ereduak egin ditu noiz edo noiz.

⁵¹ Ikasketak D ereduak egin ditu noiz edo noiz.

⁵³ G ereduak egin ditu ikasketak guztiak.

⁵⁵ Ikasketak A edo B ereduak egin ditu noiz edo noiz.

⁵⁷ Ikasketak D ereduak egin ditu noiz edo noiz.

⁵⁹ G ereduak egin ditu ikasketak guztiak.

⁵⁰ En algún momento de sus estudios ha cursado en modelo A o B.

⁵² En algún momento de sus estudios ha cursado en modelo D.

⁵⁴ Ha cursado todos los estudios en el modelo G.

⁵⁶ En algún momento de sus estudios ha cursado en modelo A o B.

⁵⁸ En algún momento de sus estudios ha cursado en modelo D.

⁶⁰ Ha cursado todos los estudios en el modelo G.

4.2. EUSKARAZKO IRAKASKUNTZAREN BALIOESPENA


Galdetutako biztanleen % 26,3 seme-alabak D ereduan matrikulatzearen alde agertu dira; % 22,8 A ereduan matrikulatzearen aldekoak dira. B eta G ereduetako matrikulatze-tasa txikiagoa da, % 16 eta % 19 ingurukoa, hurrenez hurren. Aipatu behar da biztanleen % 13,1 seme-alabak British ereduan matrikulatzearen aldekoak direla (eredu horretan ingelesez eta gaztelaniaz eskaintzen da irakaskuntza).

4.2. VALORACIÓN DE LA ENSEÑANZA EN EUSKERA

El 26,3% de la población encuestada es favorable a una posible matriculación de sus hijos e hijas en el modelo D, estando el 22,8% a favor de la matriculación en el modelo A. La tasa de matriculación en los modelos B y G es algo menor y se cifra en torno al 16% y 19% de la población respectivamente. Cabe destacar que un 13,1% es partidario de matricular a sus hijos e hijas en el modelo British, en el que se imparte la enseñanza en inglés y castellano.

29. GRAFIKOA / GRÁFICO 29

Nafarroako biztanleak. Zein hezkuntza-eredutan matrikulatuko zenituzke seme-alabak gaur egun? (% bertikalak)
Población de Navarra. ¿En qué modelo educativo matricularía a su hijo o hija hoy en día? (% verticales)



Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea

Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

Eremu euskaldunean, galdetutako biztanleek D eredua aukeratuko lukete zalantzarik gabe, gaur egun seme-alabak matrikulatu beharko balituzte; G eta British ereduak dituzte emaitzarik urrienak. Eremu mistoko biztanleek ere euskara hutsezko eredua hobetsi dute; galdetutakoen % 20k A eta G ereduak aukeratu dituzte, eta, hemen ere British eredua aukeratu da gutxien. Eremu ez-euskalduneko biztanleek A eredua aipatu dute gehien, eta, gertutik, G eredua azaltzen da; eremu horretan D eredua aukeratu dute gutxien.

En la zona vascófona, la población encuestada se decantaría claramente por el modelo D si tuviera que matricular a sus hijos e hijas en la escuela hoy en día; por el contrario, los modelos G y British recogen los resultados más bajos. La población residente en la zona mixta también se declina por el modelo íntegramente en euskera, mientras los modelos A y G son seleccionados por el 20% de las personas encuestadas, una vez más, la opción British es la menos apoyada. El modelo A es el más mencionado por la población de la zona no vascófona, seguido a poca distancia por el modelo G; en este caso, el menor apoyo corresponde al modelo D.

40. TAULA / CUADRO 40

Nafarroako biztanleak. Zein hezkuntza-eredutan matrikulatuko zenituzke seme-alabak gaur egun? Hizkuntza-eremuen arabera (% bertikalak)

Población de Navarra. ¿En qué modelo educativo matricularía a sus hijos e hijas hoy en día? Por zona lingüística (% verticales)

	EREMU EUSKALDUNA ZONA VASCÓFONA	EREMU MISTOA ZONA MIXTA	EREMU EZ-EUSKALDUNA ZONA NO VASCÓFONA
A eredua / Modelo A	7,8	21,7	28,6
B eredua / Modelo B	16,3	16,3	16,4
D eredua / Modelo D	71,3	27,6	11,8
G eredua / Modelo G	2,1	18,2	26,1
British	2,0	13,6	15,3
Ed-Ee / Ns-Nc	0,5	2,6	1,8

Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea

Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

Nafarroako 2000. urteko Eskualdekatzearen arabera, Ipar-mendebaldean (% 70,9), Pirinioaldean (% 45), Estellerrian (% 30,9) eta Iruñaldean (% 26,3) D eredua aukeratuko lukete gehien seme-alabak matrikulatzeko. Ekialdeko erdialdeko Nafarroan A ereduak du portzentajerik altuena (% 37,2), baita Erriberan ere (% 34,7); hor antzeko balioak dituzte B eta G ereduak (% 24,5 eta % 24,3, hurrenez hurren). Tuteraldean G ereduak matrikulatuko lituzkete seme-alabak (% 39,4). Azkenik, British ereduak ditu emaitzarik onenak Ekialdeko erdialdeko Nafarroan (% 19,7) eta Tuteraldean (% 18,4).

